—La imagen con la que posteriormente se ha adornado a ese personaje (Suárez) no se corresponde en modo alguno con la realidad de lo que esta persona fue. Yo diría que Martín Villa fue el segundo de a bordo del proceso de la Transición, por el papel central que tuvo en el aspecto represivo y en la reordenación competencial y territorial en todo el Estado. Aquí con Amadeo Marco y Del Burgo.

¿Por qué Sanfermines del 78, con una intervención brutal, que se sumaba a Vitoria o Montejurra, y tuvo correlato en Donostia y Errenteria, no dejó más huella electoral?

—La respuesta popular fue muy grande, la huelga general en Navarra duró tres días mínimo. La respuesta en el conjunto de Euskal Herria también fue muy importante. El malestar era generalizado en grado sumo, en relación con esa barbaridad sumadas a las que ha comentado. Que luego eso no se transmitiera en parámetros electorales... en las elecciones de 1979 el PSOE todavía no había pegado el chaquetazo a esos niveles...

**Noticias de Navarra**  
Continuar leyendo en la web:  
[www.nabarralde.eus](http://www.nabarralde.eus)

espacio era un claro intento de colonización simbólica, de normalización de la presencia del poder español incluso en los reductos más íntimos de la identidad catalana.

Era una visita que no buscaba visibilidad pública, sino sobre todo legitimidad simbólica, la legitimidad que habría conseguido si hubiera podido subir tranquilamente a pie y hubiera sido recibido con todos los honores en la plaza, en la puerta principal del monasterio.

De ahí la enorme importancia de la protesta de la ANC, precisamente por la capacidad de interrumpir y hacer imposible el discurso de normalidad que el poder espa-

ñol pretendía erigir. Era muy importante no permitir que esta visita transcurriera sin fricciones, sin contradicciones, sin un recordatorio de la ilegitimidad de la monarquía española en Cataluña y más en concreto de este monarca actual.

Y sinceramente: si hay quien no entiende esto y pretende, dentro del catalanismo, hacer befa de la gente que allí acudió, ¿qué podemos hacer? No voy a ser yo quien pierda el tiempo, discutiéndolo, ahora. Este país ya está tan contaminado de odio y de rencor y tan decepcionado que incluso puedes permitirte hacer este tipo de befa y, al mismo tiempo, pasar por el más puro y patriota, tú que

no has movido ni un dedo para impedir el gesto que el Borbón pretendía hacer.

Pero resulta que uno de los errores más comunes en el análisis político es precisamente desdeñar la eficacia de los gestos simbólicos. Y por eso ayer era tan importante que hubiera gente que plantara cara. Y por eso es necesario dar las gracias a la Asamblea. Los regímenes autoritarios no menosprecian nunca los gestos simbólicos: comprenden que la batalla por el sentido común, por la normalidad, se disputa en gran medida en el terreno simbólico. Y por eso emplean tantos recursos en el espectáculo del poder, en la solem-

nidad de los actos, en la pompa que rodea las apariciones públicas de los dirigentes. Y si ellos no menosprecian este terreno, ¿por qué caramba no deberíamos reaccionar nosotros?

Cuando el poder pretende aparentar normalidad, pero se encuentra obligado a mostrar el rostro menos amable —con una presencia desproporcionada de policías, medidas de seguridad excesivas, tensión palpable y ruptura de las normas protocolarias—, cuando ocurre todo esto y la normalidad se resquebraja, en esta fractura se hace visible la violencia que esconde la apariencia social de cotidianidad.

Por tanto, lo que ocurrió ayer en Montserrat debería servir para recordar a todo el mundo, para recordar al país, que la normalidad nunca es neutral. Que la normalidad es un terreno de lucha política, seguramente el más importante, en el que se dirimen cuestiones fundamentales sobre quién tiene el derecho de ocupar qué espacios, quién puede aparecer como legítimo y quién es excluido de la representación pública. Y que luchar para que no nos impongan su normalidad es y será siempre una batalla imprescindible, un combate a librar.

**Vilaweb**

# Frantzia iparraldeko iheslariak eta Euskal Herriko hegoaldekoak, eskualde berean

Mikel Dalbret



Comete sareak Euskal Herrian izan zituen laguntzaileen omenez Zokoako hilerrian antolaturiko omenaldi bat. (Bob EDME)

«Zailena, sasoi arabera, Bidasoa zeharkatzea zen. Gertatu zen iheslari batzuk itotzea. Mugalari baten beharra bazen, bertakoa, euskalduna. Bere gaztaroan artzain bezala ibiliz, Manuel Iturrioz orexatarra Comète sareko lehenbiziko mugalaria izango da».

Behin herrian kokatuak, errefuxiatuendako lehen tasuna Iparraldean geratzeko agiri bat eskuratzea zen. Legez, alkateengana joatea zen modu egokia. Jadanik ikusita bezala, zaila zen, ia ia ezinezkoa, kasu gehienetan. Salbuespenetako bat Josef Abeberriren jarrera dugu, zorigaitzoan zeuden euskal anaienganako eskuzabaltasun eta elkartasuna erakusten zuelako.

Ele hauek laguntzeko bi adibide: Lehena 1940ko otsailaren hilabetearen igaro zen. Ziburuko udaletxean Tolosa aldeko gipuztar batek alkatea ikusteko galdegin zuen. Da-

goeneko hirugarren kronikan ezagutu dugun Manuel Iturrioz zen. Eusko gudaroste kapitania ohia, bere ilobak idatzi zuen bere memoriaren liburu batean kontatzen dituzten bere bizipenak eta, besteak beste, nola ezagutu zuen Josef Abeberri.

Berrikitan Donibane/Ziburura iritsi, beste errefuxiatuen arabera, orexatarrek jakin zuen arrangoiztarra pertsonarik egokiena agiri baliotsua eskura zezan. Liburu berean aipatzeko anekdota bat: Manuel Iturrioz ogibide gisaz han eta hemen bere besoak eman zituen etxaldeetako lanak egiteko. Sarritan, etxeko gizonak ihes egin zuten edota Alemaniara deportatuak izan ziren bertan lan egiteko, bertako gizonak gerrara joan zirelako. Ondorioz, hemen, emazte eta andereak berriko lanak egiteko bakarrik zeuden. Ziburuko alkateari, laguntza emana gatik es-

kertzeko, eskaini zion oilasko eder bat, garaian ez zen gutxi.

Bigarren eredu, Josefen semea Jean Claudek eman zizkidan agiriaren arteko akua-rela polit eta hunkigari batean dago. Goian erakusten digu Ziburuko udal-txea elurretan, irudi bakan bat hor itsaso bazterrean. Azpian bertakoa: «Ziburuko Jaun Merari eta bere bitartez Ziburutar guzietan sartaldeko euskaldunari egin diguten ongiethorri maitekorragatik. Eskerrak emanez 1938 Gabonzar Urteberri 1939».

Bertsuen azpian orrialde osoz banaturik ehun bat izenpetze. Orrialdearen beheran errefuxiatuen abesbatza margoturik.

Garai berean, 1941.eko udan, nonbait Belgikan, Comète erresistente sarea sortu zuten «Dédée» de Jongh anderea eta beraren aita. Gero sare horren buruzagiak izango dira.

Egitasmoaren asmoa zen eraitziko hegazkinlari aliatuak, inglesak edo estatu-batu-tarrak, babesa emateko. Horretarako militarra haiei iparraldetik hegoalderaino eskolta emana izan zitzaien, hain zuzen Donostiraino. Gero, txanda harturiko bertako konsul britainiarrak euren garraioa bermatzen zuten Gibraltarraino.

Donibane Lohizunetik Donostiraino zen bideetako bat, arriskutsuena. Eskualdea zeharkatzeko dena oinez. Zailena, sasoi arabera, Bidasoa zeharkatzea zen. Gertatu zen iheslari batzuk itotzea. Mugalari baten beharra bazen, bertakoa, euskalduna. Bere gaztaroan artzain bezala ibiliz, Manuel Iturrioz orexatarra Comète sareko lehenbiziko mugalaria izango da. Zoritxarrez zelatariz gainezka zegoen eskualdean. Bizkor, Abwehren agente bikoitzek sarea infiltratu zuten ondorioz atxilotu eta deportatuak izan ziren militar ugari baita sarea barreiatu ere. Manuel Iturriozek bertan behera utzi du mugalari izaten. Bide eta mugalari berrien medio ezkutuko erakundeak haren egitekoak jarraituko ditu.

Mugaren inguruan mota guzietako errefuxiatuak aurkitzen ziren. Haien artean juduen kontrako legeetatik ihes egiten zuen jendea. Zehaztu behar da gerraren hasieran Baiona eta kostako zonaldea ez zeuden zone libre deituriko espazioan. Demarkazio marra iparretik hegoaldeko zuzen igaro zen atlantiko kostatik hurbil, Donapaleutik Arnegiraino, ipar Euskal

Herria bi zatitan moztuz. 1942. urtetik aurrera erremu osoz barne hartuko du.

Bi iheslari mota ziren, militarra eta zibilak. Bietan euren motibazioak ulergariak zitezkeen. Batzuk, militarra, borrokaz, aliatuen nazien kontrako zerbitzuan ziren. Beste batzuk, hau da zibilak, diskretoki ibiliz nonbait esan dezagun balizko zelatariak zirela. Haienetako bat zen Léon Stern. Bera nortasun faltsu baten pean, Pariseko bere larro-apaintzaile denda utziz gero, babesa aurkituko du Baionako pertsona batengana, Margot Abeberriren familiaren laguna.

Margot, ia berrogei urteko adina, errietsa ezkongabe bat da, halere emazteki modernoa, librea da. Afari baten kariaz Leon Stern gonbidatua izango da familia hortan, berrikitan iritsitako gizon horren eta Margoten artean bat bateko amodio sutua sortuko da. Handik goiti asma daiteke, haiei buruz, Aturri ertzean zer solasa motak ibiltzen ziren. Harez gain, garaian juduen bizitza nahiko zaila zitzaien Baionan, aurreragoan ikusiko dugunez. Haatik, 1947.eko urtean ezkonduko dira biak. Egia erran, bitartean, antisemiteak kalmatuak izan ziren. Gertaldi honen argian kontura dezakegu nolakoak izan Josef Abeberriren familiaren baitako baloreak.

Segi webgunean irakurtzen:  
[www.nabarralde.eus](http://www.nabarralde.eus)

## Ama ahaztu arazia

Iñaki Idigoras Igartua

Arrotz matxista batek gure ama erail zuen. Umezurtzoi ezkutatu egin zigun egia. Bere menpean hazi gintuen, eta bere interesen arabera hezi, bakoitzari «bera» emanez. Ama ahaztu, eta bakoitza «berezia» zela sinestazteko. Ahizpok elkarrengandik aldentuz, bere kontra ez olandartzeko. Gure onarpena nahi zuen, berarekin «betidanik» eta borondatez geundela sinestazteko.

Gipuzkoarrok ama eta ahizpak ahaztuta gabiltzala irudituz zait, aurten bereziki. Bereziak garelako ustean

sakontzen ari ote garen... Aurrekoan, Ahaldun Nagusia eta alkate gehienak Tolosan elkartu ziren ekitaldi sinboliko batean, «gipuzkoarren nortasunari» gorazarre egiteko. Eskutik helduta ibili ziren. Dantza egin zuten. Xume, polit, jator, «ahizparik euskaldunena».

«Gaurkoan, herri honen nortasuna irudikatzen duten sinboloak aldarrikatu nahi ditugu, adierazten dutelako nondik gatozen, zer garen eta zergatik».

Itxuraz esaldi ederra, baina edukiz?

Gipuzkoa da «herri hau»? Ondo hasten gara, gero!

«Nondik gatozen»? Apenas aipatu duten egirik esanguratsuenak. Alegia, 1025ean Ipuskoa Iruñeko erresumaren parte zela. Harik eta 1200ean arrotzek konkistatu zuten arte. Hitzik ez, krimenaz. Noski, ezkutatu egin behar da: ez dator bat aitaorde espainiarraren ipuinarekin.

«Zer garen eta zergatik»? Kulturari erreparatu diote, horrek

bai baitauka errelato espainiarrean lekuri, estatu «plurinazionala» izaki. Gero euskaraz bizitzen uzten ez badigute ere. Baina politikaz? Aipamenik ere ez, motz eta garbi esan badaiteke ere: Espainiapekoak gara, konkistatu egin gintuztelako.

Konkistaren azken fasean sartuak gara. 1200ean militarri hasi zutenari segida ematen ari dira harrezkero, etenik barrik. Garai «paketsuotan», juridikoki eta mediatikoki. Pentu pozoindua ematen digute egunero: memoria lausotzeko, autopertzepzioan interfe-

ritzeko... espainiarrezko, fin batean.

Nafarroak zentralitatea dauka politikan. Bera da gure askatasunaren produktu. Geuk eraikitako estatua izan zelako ama.

Ahizpok: ama gogora, berriro ere izan gogo bagara, batu eta aske. Sinboloei dagokienez, Orreaga, Gasteiz, Amairu, Castejon, Intxorta, Xiberta, Lizarra-Garazi... han bildutakoen espirituak gida gaitzala, San Inazio bano.


## Eguneko argazkia

Sara

Plaza, frontón, partido de pelota vasca. Nabarralde trabaja desde hace años el concepto de “lugares de memoria” a través de publicaciones, conferencias, incluso de documentales y audiovisuales. Castillos de Navarra (con Iñaki Sagredo), Beloaga, Arantzazu, harriz herri... Pero además de los espacios míticos, épicos, históricos, este concepto también abarca sitios y conceptos que califican nuestra identidad y existencia de un modo más natural, más ordinario, pero no por ello menos indeleble y digno de tenerse en cuenta.

Un ejemplo cotidiano, potente, lo tenemos en las plazas de cualquiera de nuestras localidades, sean capitales, municipios o barrios de montaña. En cualquier rincón habitado hay una plaza. Y ha sido el marco en el que se celebra la vida en común, la fiesta, el terreno de celebración, cualquier evento que nos venga a la memoria: campo de juego, amigos, encuentros, mercado. Sobre todo, escenario de nuestra infancia, y en ello muy vinculado a nuestra memoria personal (y colectiva), pero también música, bailes, actos públicos de todo tipo.

La imagen de Sara es ilustrativa: es la muestra del carácter patrimonial de cualquier plaza. Concentra el espacio arquitectónico, ocupado por la actividad deportiva, en esta caso tan nuestra como la pelota vasca. Arquitectura, deporte, juego, fiesta, mercado, a veces protesta, manifestación o maskarada. Memoria, como la vida misma.



## 'Jesusen Bihotza', itxita ez dagoen eztabaida bat

Xalba Ramirez

'Jesusen Bihotza' monumentua hiriko ia edozein puntutatik ikusten da. Batzuentzako hiriaren irudi ederra da, beste askorentzat, berriz, frankismoaren ondarea. Eztabaida abiatu berri da Memoria Historikoaren Aholku Batzordean aurkeztutako dokumentuekin.

Fernando Prado Ayuso Donostiako Gotzainak zortzi orriko dokumentua bidali zuen hedabideetara, eskulturaren inguruko «egitateak» aurkezteko. Eneko Goia alkateak erabilitako argudio berberak erabili ditu: frankismoaren aurretik sortutako ekimena dela, erakundeetatik kanpo proposatu eta finantzatu zela eta inoiz ez zuela Francori gorazarre egiteko sinbolo edo plakarik izan, inaugurazio ekitaldian nabarmendu zenez. Eta hiru argudioak egiak diren arren, apur bat testuinguruan jartzea falta zaie.

Jesusen Bihotzaren «milaka irudi»

XVIII. mendearen amaieran hasi ziren Jesusen Bihotzaren inguruko lehenengo kanpainak. «Jesusen Bihotzaren milaka irudi» banatu ziren Gipuzkoan barrena, eta XX. mendearen lehen laurdenekoak dira hainbat eta hainbat irudi. Parte Zaharreko Santa Maria elizakoa izan ezik,

1766koa omen da, eta itxuraz, penintsulako zaharrena da.

Honela, bada, 1926an, Pio XI aita santuak egindako adierazpenen ondotik, Gasteizko Gotzain Mons. Zacariasek sustatuta, «fededun talde batek» elizbarrutiko buletinean jaso zuen Urgullen Jesusen Bihotza eraikitzearen ideia. Zacarias gotzainak kargua uzterakoan, berriz ere, animatu zituen gipuzkoarrak obra hau egitera: «Koloso bat Urgullen, Gipuzkoako hiriburua ederra menderatzen duen puntu horretan altxatua; zeruaren, lurraren eta itsasoaren artean, zuen herrialde katolikoaren seme-alabak goieneko bedeinkazioak erakar zitzen». Apezpikuak, gutun horretan, «idea azkeneraino eramateko borondate sutsuari eusteko» eskatu zien fededunei, eta Gipuzkoako eliza guztietan irakurri zen gutuna, eta diru «dezente» lortu zela kontatzen du Prado Ayuso gotzainak.

Errepublikan, geldirik

Proiektuak, ordea, ez zuen aurrera egin, «ezgonkortasun politiko» garaia zela eta, Prado Ayusoren hitzetan. Hain zuzen, 1920ko hamarkadan, Primo de Riveraren diktadura bete-betean izan ziren honako proposamen hauek, eta, 1931ean, Espainiako Bigarren Errepublikaren garaian, ez zuen lekurik.

Prado Ayusok ez ditu garai horietako eztabaidak jasotzen, eta, zuzenean, 1938 ilunera egiten du salto. 36ko gerra oraindik bukatu gabe, hirian 400dik gora fusilatu, milaka erbesteratu eta errepresio giro itogarria zegoen bitartean, proposamena berrartzeko une aproposa zela iritzi zuten Legion Catolica eta nazioarteko Otoitzaren Apostoluak mugimenduek.

Nola ez, Antonio Paguagua alkateak —lehendik mugimendu karlistan ibilitakoak—, ideia ontzat jo, eta lehenengo 100.000 pezetak eskaini zituen. Garaiko giroan ohikoa zen moduan, Francoren eta martiri faxisten omenaldi gisa irudikatu zuen eskulturaren eraikuntza. Argitaratu berri den 1939ko udalaren aktak, hori jartzen du agerian: «Gurutzada Nazionaleko martirien uko egite heroikoa adierazpen handi batean betikotu nahi duen ekimen» gisa ikusten zuten monumentua. Eta honela justifikatzen zuen: «Harpidetza hasierako lehen kuota udalarena berarena da; izan ere, hiri honetan monumentu handia eraiki behar da, Jesusen Bihotzaren estatua erraldoi batean azkenduko dena, eta Aberriaren Caudillo Salbatzailearen jeinuak gidatuta haren eta Espainiaren alde bizia eman duten guztiak bere maitasun besoen azpian babestuko dituen».

«Normaltasuna berreskuratu»

Urte batzuetan proiektua ez aurrera ez atzera geratu zen, harik eta 1944ko maiatzean, Carmelo Ballester gotzainak bilera bat antolatu zuen arte. Bertan izan ziren hiriko «agintari zibil eta militarrek», diputazioko lehendakaria eta Donostiako alkatea. Honela argudiatu du Donostiako Gotzainak hedabideei bidali dien oharrean: «Elizaren babeseko ekitaldi publiko hark ez zuen helburu politikorik: Jesusen Bihotzaren maitasunaren ageriko zeinua probintzia osoari eskaintzeko nahiari erantzuten zion, anaiarteko gatazkaren ondoren normaltasuna berreskuratu behar zuen garai batean».

Nekez ulertu daiteke faxismoak gobernatutako herri batean sortutako dinamika horren garrantzitsu bat, «normaltasunera» itzultzeko ahalgin gisa, militar eta agintari frankistek bultzatu eta babestuta. Egia da, bestalde, Prado Ayusok dioen modura, ezin dela frankismoan eraikitako guztia «monumentu frankizatza» hartu. Honela egin behar harko litzatekeela bestela, Donostia Ospitalea, Peñaflores institutua, Perituen Eskola, eta Francok berak inauguratutako beste hainbat eraikin.

Ordea, manikeoa da frankismoarekin «inolako zeri-

kusirik ez zuela» esatea, eta herritarren inizatiba soil gisa irudikatzea. Herritarren gehiengo handi bat deserrian edo mehatxupearan zegoen bitartean, agintari frankistek sustatuta —1.623 udal funtzionario ikertu eta baztertu ostean—, udal erabat antide-mokratiko batekin.

Sarean, ere, izan dira eztabaidak. Erabiltzaile batek esan zuen, frankista edo ez, monumentuak bere amonarekin lotzen duela, txikitzen hara eramaten zuelako. Ahaztu egiten dira eztabaida horietan denok ditugula amonak. Gurea, Irunberritik (Nafarroa) deserriratzera zigortu zuten frankistek, aita errepublikazalea zelako, eta Donostiara etorri behar izan zen bizitzera. Eta sekula ez zen igo Jesusen Bihotza-ren estatua azpira: «Hori hor jarri ziguten gerra amaitzean, oroitzeke nork irabazi zuen».


## Juan Martin Elexpuru: "Lokalizatuta dauden epigrafeak leku batean biltzeko ahaleginik ez da egin"

Miel Anjel Elustondo

Iragan udazkenekoa dugu liburua: Euskarazko izenak erromatar garaiko aldare eta hilarrietan (Nabarraide, 2024). Historiara jo du berriz Juan Martin Elexpuru idazle eta filologoak, eta argira ekarri euskarak epigrafian egina duen bidea, utzia duen aztarna, orain artean inork egin ez bezala.

Liburuari sarrera eginez diotuzenez, hutsune bat betetzeko asmoz burutu duzu lan hau. Bai. Izan ere, erromatar garaiko euskal izenen gaia lehen leerroan egon da beti, euskararen historiaren arduratu direnen artean, gutxienez behintzat. Asko idatzi da horretaz, baina orain arte, nik dakidala, ez da argitaratu esku-liburu ganorazkorik, hau da, epigrafe ia guztiak transkribatuta eta argazkiak dituenik; bila daitezkeen neurrian, jakina. Liburu honetan, berriz, orain arte batzuek eta besteek esandakoaz aparte, epigrafeen testuingurua eta izen bakoitzaren balizko esanahia aztertzen saiatu naiz.

Epigrafiaz ari zara, material gogorretan egindako idazkunen aztertzen dituen zientziaz, alegia. Zer jakinarazten digu epigrafiak euskaldunoi? Antzina, pergaminotan edo papiroan idazten zen gehienbat, baina material galkorrak izaki, orduko idatzi asko eta asko ez zaizkigu gure eguneretara heldu. Material gogorretan grabatutakoak, berriz, iraun egiten du eta eskerrak horri informazio ugari jaso dugu antzinateaz. Euskararen



kasuan idazle erromatar klasi-koen testuetatik baino askoz gehiago heldu zaigu epigrafiatik, batez ere hilarri eta aldareetatik. Eta horiek biltzera jo dut nik liburu honetan.

Askotariko epigrafeak ditugu, txanponak, miliarioak, oroiarriak, ostrakak... zuk, hala ere, oraintxe aipatu dituzunak ekarri dizkiguzu liburura, aldare eta hilarrietakoak. Zer dela-eta? Ugarienak direlako, askogatik. Eta bestelakoetan euskarazko izen oso gutxi agertzen delako. Hazparneko Harria, esaterako, bestelakoa da. Novempopulania-ren sorrera ospatzeko eraikitako harritzarrak ari naiz, inskripzio luze bat duena. Historia aldetik oso inportantea, baina euskarazko izenik ez duena. Herauscorritse jartzen duen Atharratzeko aldareak, berriz, euskal dibinitate baten

izena dakar, eta interpretatzeko bidea ematen du hizkuntza aldetik zein beste ikuspegi batzuetatik.

Segurtamenez bezainbat zalantzaz ari gara idazkunen aurrean... Non ditugu epigrafeak zuzen-edo interpretatzeko zailtasunak? Izen batzuk oso gardenak dira, Andere, Astoilun, Belsco, Bihotz edo Sesenco ikustean badakigu zeren aurrean gauden. Beste batzuekin zalantzak sortzen dira, handiak edo txikiak; Aherbelste jainkoa, ziur asko, egungo Akerbeltz da, eta Erditse jainkosa erditzera doazen emakumeen babeslea. Baina ziurtasun osoz ezin esan, hala ere. Bestalde, hainbat izen agertzen da, ziu-rrerik euskarazkoak izango direnak, ez baitira izendegi latindar, iberiar edo zeltetan agertzen, baina zer esan nahi duten ez dakigu. Esaterako,

zer dira Acan, Ageio, Bambits, Toliandots, Xuban... eta beste hainbat izen? Ez dakigu.

Zer du Joakin Gorrotxategi filologoak aztertutako Akitaniak, beste zenbait eskualdek ez duenik? Akitania oso handia da, eta Akitaniako parte batean, Goi Garonan, agertu da epigrafe gehien. Zaila da jakitea zergatik Convenatarren lurretan, Lugdunum Convenarum -egun, Saint-Bertrand-de-Comminges-, hiriburuaren inguruan agertzen diren ia euskal epigrafe guztiak, eta zergatik Landetan, Biarnon edota Ipar Euskal Herrian agertzen diren hain gutxi.

Euskarazko epigrafeen banaketa irregularraz ari zara, alegia. Zertan da banaketa hori? Non daude gorderik? Liburuaren hasierako mapa

batean azaldu dut banaketa irregular hori. Goi Garona eta ondoko Goi Aturri ibarretan 205 euskal epigrafe agertu dira, eta gainontzeko guztian -hau da, Girona, Landak, Biarno eta Ipar Euskal Herria-, bost besterik ez. Eta suposatzen da eskualde horiek ere euskaldunak zirela. Hegoalde osoan 60 bat dira, Burgos, Soria eta Aragoi barne hartuta. Non dauden gorderik? Inon ere ez. Batzuk in situ daude, elizetako edo etxe partikularretako hormetan edo iturrietan ezarrita. Esku partikularretan epigrafe gutxi ere ez! Banaka batzuk Euskal Herriko museoetan ikus daitezke, baina oso gutxi.

Liburuan kontatzen duzunez, haiek ikustera urrutiko museoetara joan, eta bate-re ez dagoela ohartu zara... Hori ere gertatu zaigu, bai. 2024ko udan Akitaniako museoak bisitatu genituen argazkiak ateratzeko asmoz, eta emaitza penagarria izan zen. Luchongo Sacaze museoan 25 bat pieza egon behar zuten, Eduardo Orduñak 2014an emandako datuen arabera, baina... museo hori itxita dago 2017az geroztik. Pentsatzen dugu han jarraituko dutela. Okzitaniako Tolosan ez genuen bakar bat ere aurkitu, nahiz eta teoriarik han mordoxka bat eduki behar zituzten. Eta Saint-Bertrand, berriz, hogeita pieza egon behar zuten lekuan, bi bakarrik zeuzkaten. Negargarria da altxor horiekiko dagoen, dugun ardura falta.

## Eman izena nabarkide izateko Hazte socio de Nabarraide

nabarraide.info@gmail.com · (34) 948 21 10 57 · Bidankoze kalea 3 · 31014 · Iruñea/Pamplona/Pampelune · NAFARROA-NAVARRA-NAVARRRE · DLNA: 2449/2005 · ISSN 1885-2181

Izen- abizenak Nombre y apellidos:

Helbidea / Dirección:

Herria / Población:

Posta kodea / Código postal:

Hizkuntza / Idioma:

E-mail:

Tel: Mugikorra / Móvil

Finkoa / Fijo

Kuota / Cuota (14€ Hilero / Mensuales) • 35 urtez azpikoek / menores de 35 años (10€ Hilero / Mensuales)

Erakundeak / Entidades: (Hitzarmenaren arabera / Según convenio)

Kontu zenbakia / N° de cuenta (IBAN 24 dígito):

ENA / DNI:

Ekarpenak PFEZ aitorpenean kengarri dira / Las aportaciones son deducibles del IRPF